

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Jendaurrean jartzea Moreda Arabako ondasun eta eskubide zerrendaren hasierako onespena

Udalbatzak, 2020ko irailaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen Moreda Arabako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onespena ematea.

Hartutako erabakia eta horretarako abiarazitako espedientea jendaurrean jartzen dira, he-dabide ofizial honetan eta udaletxeko ediktu taula iragarkia argitaratuz, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Hori guztia honako arau hauen arabera egingo da:

a) Non daude ikusgai?: udaletxeko bulego orokorretan.

b) Haiek aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 egun, iragarki hau ALHAOn argita-ratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, bulego orduetan.

c) Aurkezteko lekua: udal sarrera erregistro orokorrean. Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 66. artikuluan xedatutako tokietan ere aurkeztu ahalko dira.

d) Errekurtsoa nori aurkeztu? Udalbatzari.

Informazio hau jendaurrean egon den arauzko epea igaro eta erreklamaziorik egin ez bada, hartutako erabakiak behin betiko onetsizat joko dira, eta ez da beste erabakirik hartu beharko.

Moreda Araba, 2020ko irailaren 26a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL BUJANDA FERNÁNDEZ